

XABIER ERKIZIA

Soinu komunak

“Lo que tiene la música de singular y anómalo es esto: transmitirla e interpretarla son un acto único. Un libro o un cuadro se pueden conservar en una biblioteca o en un museo, después de ser interpretados, pero es otro acto, autónomo, y que no tiene que ver con su simple conservación. La música, no. La música es sonido y existe en el momento en que se toca, y en el momento en el que es tocada no se puede evitar interpretarla.” Alessandro Baricco, El alma de Hegel y las vacas de Wisconsin

Musika sorkuntzaren bideak, zentzu batzuetan behintzat, izugarri aldatu dira azken hamarkadetan, nahiz eta, *revival* fenomenoak tarteko, maiz ez dirudien hala denik. Soinuarekin lan egiteko moduak, prozesuak, modu anitzetan ugaltu dira, zabaldu, eta inoiz ezagutu ez dugun egoera eta soinu-mapa ugarienaren aurrean gaude. Beharbada ez legoke soberan erratea, musika sorkuntza zentzu klasikoan ulertu dugun bezala, ez dela inoiz gehiago orain arte bezala izanen. Baina ugaritasun hori aztertzeko Bariccok proposatzen duenari jarraitzen badiogu, badira musikaren jatorriari so eginez aldatzen ez diren gauzak, eta nahiz eta berak hori dionean musika klasikoari (edo berak musika kultura bezala definitzen duenari) buruz ari den, gauza bera pentsa genezake edozein musika alor garaikideri buruz, eta zentzu zabalenean hartuta, soinu sorkuntzari buruz ari garenean ere bai.

Musika jotzen den momentuan bertan sortzen eta bizitzen dela onartzen badugu, eta ondorioz interpretazioa autore bakoitzak lantzen duen pertsonalizazio sistemaren ariketa praktikoa bezala ulertzen badugu, musika sorkuntza garaikidearen inguruan gertatzen diren hainbat fenomeno ulertzeko pauso garrantzitsu bat eman dezakegu.

Hauetako bat, eta hasiera batean oinarritzko ondorio izan daitekeena, interpretazioa baldintzatzen duten ezaugarriena da. Alegia, interpretazioa norberaren sorkuntzaren pertsonalizazio sistema bada eta sortzailearen pertsonalizazioa eta, bidenabar, nortasuna berriz, bizi dugun inguruan gertatzen denari emandako erantzun gisara, Bariccoren transmisioa-interpretazioa binakoarekin gertatzen den antzeko zozter gertatzen da sortzailea-ingurua bikotearekin. Bat egiten dute.

Bertze hitzetan, musikak eta sortzaileak inguruan dituzten ezaugarriek baldintzatuta daudela ulertu beharko genuke.

Zoritxarrez, ordea, gutxi dira erlazio horren inguruko hausnarketa zabalak egin dituztenak. Horrek ez du erran nahi gai horien inguruan interesik ez dagoenik, baina alde batetik onartu beharko genuke marketing sistema nagusiek egiten dituzten kanpainez gain, ez dela musika kontsumitzaileen interesekoa, ezta sortzaileen gehiengoarena ere. Beharbada, hasieran erran bezala, inoiz ez delako oraingoa bezalako momentu jakinik bizi izan.

Musikari buruz, beti ere arte diziplina bezala mintzatu nahi bagara, lehenik eta behin, badira kontuan hartu beharreko hainbat ezaugarri. Ezin gara musikaz mintzatu musika berez zer den jakin gabe, eta nahiz eta gaur egun munduko edozein txokotan denok dakigun zer den musika, zinez, artearen ikuspegitik, mugak ez dira hain garbiak, ezta kontzeptuak ere.

Zer da soinu-arte gaur egun? Zein dira musika eta soinu-artearen arteko mugak? Nola erlazionatzen dira artistak beraien inguruarekin? Nola baldintzatzen ditu inguruneak

sortzeko momentuan? Zerk bultzatzen ditu erabaki horiek hartzera? Zergatik sortzen dute?

Modu batera edo bertzera, gaur egun bereziki musika esperimentalaren sorkuntzaren edo soinuaren inguruan sortzen diren proiektu eta ikerketa esperimentalen artean, badaude zenbait ezaugarri, beharbada orain arte ezagutu ez ditugunak.

Hauetako bat, bereziki orain arte (eta oraindik) tresneria elektronikoa erabiltzen duten musiken mundua baldintzatu duen gaietako bat, alor teknikoa izan da. Baina berritasun horiek ordea, parekatze ariketa gisako bat bezala ulertu ditzakegu. Bertze hitzetan, gaur egun mundu osoan zehar banatuta dauden artistek hainbat ezaugarri tekniko dituzte komunean. Alegia, sorkuntza prozesuan erabiltzen diren tresnak, erran dezagun, ordenagailuak, soinu nahasketa mahaiak eta bertzelako audio tresnak, ia berdina dira gehiago zabalarentzat. Beraz, orain arte musika elektronikoen ardurak izan duen alde tekniko hau alde batera uzten badugu, eta are gehiago komunean dauden puntu horietan oinarritzen bagara, zuzenean artistari begira jarriko gara: zein dira sortzaileen arteko desberdintasunak?

Seguru aski, galdera hori proposatzean, sortzaile bakoitzak ingurunearekin duen erlazioari buruz ari garela ondorioztatuko dugu.

Sortzaile edo artista, eta hori erraterakoan inprobisatzaile nahiz konposatzaileei buruz ari gara, bakoitzak bere erlazio pertsonala sortzen du bere inguruarekin. Batzuentzat, inprobisazioaren kasuan bezala, inguruak inprobisazioan parte hartzen duten musikariei egiten die erreferentzia, espazioarekin sortutako erlazioari bertzetan, eta noski norberaren herrialdeetan bizi diren errealitate sozial, ekonomiko nahiz politikoei gehienbat. Baina horretarako, komunitate honen errealitateen berezitasunak ere kontuan hartu behar dira, azterketa koherente eta sakon bat egin nahi badugu behintzat.

Gaur egun sortzaileen sare honetako hainbat errealitate oraindik behar bezala aztertzeke daude. Erraterako, musikari horietako gehienak internet bidez komunikatzen dira komunitate ttiki baina zabal, indartsu eta dinamiko bat osatuz. Ezaugarri honek, komunikazio digitalak eskaintzen duen azkartasuna eta zuzentasuna kontuan harturik, banakoen errealitatea ezik, komunitate osoaren baldintzak aldatu ditu, aldi berean bertzelako errealitate birtualak edo errealak sortuz.

Zentzu horretan, nomadismoa kontuan hartu beharreko bertze fenomeno berezi bat da. Nahiz eta aski alor minoritarioa izan, mundu osoko sare horren dinamikaren bitartez artista horiek mundu osoan zehar beraien lana aurkezteko aukera dute gaur, eta urteak aitzinera joan ahala, askorentzat hori bihurtu da beraien errealitatea, beraien ingurua. Beraz, horrelako baldintzek, erreferentzia kultural jakin batzuei begira jarri baino multikulturalitate forma berriak, edo kontrako kasuan neutraltasun kulturalak ere erakutsi ditzakete.

Analisi hori egiteko helburuarekin jaio da *Common sounds* proiektua, sortzaileen inguruari buruz gehiago jakin eta komunitate horren berezitasunak aztertu eta hobe ezagutzeko. *Common sounds* musika esperimentalaren sorkuntza garaikidearen inguruan egindako azterketa eta hausnarketa sakon baten ondorioz sortutako proiektua da. Komunikazio saiakera bat da barnetik kanporako norabidean, gutxitan aztertu den errealitate artistiko honetan sakontzeko helburuarekin.

Izan ere, orain dela urte gutxi imajinaezinezkoa zen produkzio maila batera iritsi den alorra da musika esperimentalena, edo erran dezakegun arriskutsuena, eta dudarik gabe, nahiz eta azken urteotan jakin-mina piztu duen, arrazoi askorengatik, artearen munduak, beharbada, gehiagotan kontuan hartu beharko lukeen alorra da.

Egitasmo honek atenzioa deitu nahi du sorkuntza zentro desberdinen inguruan, eta artista komunitate zabal honek bere baitan nahiz bere inguruarekin mantentzen duen erlazioan sakondu nahi du. Artista sare honen begirada zabal bat proposatu nahi du, eta aski egoera eta ingurune desberdinetan lan egiten duten bertze sortzaileekin batera esperientziak elkarbanatzeko egoerak sortu.

Proiektua garatuko den herrialde bakoitzeko esperientzia jakinen azterketatik abiatuz, errealitate ugari hau hobeto ezagutzeko bide baliagarriak plazaratuko dituen diskurtso sendo eta zabal bat proposatu nahi du *Common soundsek*. Bakarrik artisten auto-ezagupen mekanismo bezala balio behar izan gabe, alor artistiko honen azterketa eta ikerketa gisara erabili daitekeen tresna izan nahi du, eta soinu sorkuntza garaikidea ikertzeko bide berriak proposatu.

XABIER ERKIZIA musikaria, produktorea eta kazetaria da. Bere lana jende, soinu eta formatu desberdinen arteko ikerketan oinarritzen da, soinu instalazio, bakarka, taldekako edo inprobisazio kolektiboak bezalako formatuetan. Europa nahiz amerikako hainbat herrialdetan erakutsi du bere lana eta hainbat diska argitaratu ditu. Bertze musiken nazioarteko ERTZ www.ertza.net jaialdia zuzentzen du eta Artelekuko AUDIOLAB soinu departamentuaren koordinatzaile lanak betetzen ditu.

CC

Artikulu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago. Testuak nahiz itzulpenak kopia, banatu eta jende aurrean erakutsi ditzakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu. Lizentzia osorik irakurri nahi baduzu: http://creativecommons.org/licenses/index_html?lang=eu